

2015/2016 ikasturteko udazkeneko seihilekoaren antolamendua


1. GOGOETA OROKORRAK

a. ECTS eta irakaskuntza

ECTS kredituek zehazten dituzte ikasle bakoitzak bete beharreko lan orduak:

- 1 ECTS = Ikaslearen 25 lan ordu.
- 6 ECTS = Ikaslearen 150 lan ordu.
- 30 ECTS = Ikaslearen 750 lan ordu.

6 ECTS dituen irakasgai batean, orduak honela banatzen dira:



Hortaz, irakaskuntza antolamenduan, kontuan hartu behar da ikasleek 150 ordu eduki behar dituztela 6 ECTS dituen irakasgai bat gainditzeko. Beraz, ez dira nahasi behar "orduak eta eskola presentzialeko denbora" eta "orduak eta ikaslearen lanerako denbora": ikaslearen lan autonomia ikasgelan ematen diren ordu kopurua baino handiagoa izan behar da.

b. Irakaskuntzaren antolamendua

Irakasgaien profilak zehazten du nola egin antolamendua: talde handietan edo ertainetan. Profila kodeen bidez izendatzen da: A, A1, A2, B, P etab. Guztien deskribapena azaltzen da EUera egokitu diren unibertsitate ikasketa ofizialen antolamendurako jarraibideetan. Honako orrialde honetan daude behera kargatzeko:

<http://www1.unavarra.es/conocerlauniversidad/normativa/enseanzas/normativa-general?submenu=yes>

A profila da ohikoena. Horregatik eredu hori erabiliko dugu azaltzeko zer dakarren profilak ezartzeak ordutegiak egiterakoan. Profil honetan, ikasle kopuruak zehazten du bikoizketa dagoen ala ez:

- *Bikoizketa*: 41 eta 80 ikasle artean.
- *Bikoizketa gabe*: 1 eta 40 ikasle artean.

Irakaskuntza betetzeko ikasleek 30 saio hartu behar dituzte. Saio horiek antolatzeko moduari buruz gehiago jakin nahi baduzu, kontsultatu dokumentu hauetan:

- Irakaskuntzaren antolaketa 1. - 6. seihilekoetako irakasgai eta taldeetan, 1. ikasmaitatik 3. ikasmaitara.
- Irakaskuntzaren antolaketa 7. seihilekoetako irakasgai eta taldeetan.

Esteka honetan daude eskuragarri:

<http://www.unavarra.es/fac-humanasysociales/estudios/grado/grado-de-maestro-en-educacion-infantil/horarios?submenu=yes>

c. Orduak

- Saio guztiak adostutako orduan hasten dira: 8:00, 10:00, etab. Ez dago irakaslearen esku saioak beste ordu batean hastea, hurrengo saioaren hasieran eragin dezakeelako.
- TH saioak **1h eta 45 minutukoak** izango dira, saio aldaketa errazteko xedez. Denbora hori bi modutan egiteko aukera izango da:
 - *Etenik gabe*: saioa “eta 45 minutuan” bukatuko da. Adibidez: 8:00etan hasten bada, 9:45ean amaituko da.
 - *5 minutuko eten labur batekin*: saioa “eta 50 minutuan” bukatuko da. Adibidez: 8:00etan hasten bada, 9:50ean amaituko da, etenaldi bat egin delako 8:55etik 9:00etara.
- Bikoizketak daudenean (41 ikasletik 80 ikaslara bitartean) eta irakasleak irakaskuntza bikoizketekin antolatzen duenean aste guztietan, goizeko txandan, oro har, 8:30ean hasiko dira; arratsaldeko txandan 15:30ean hasiko dira. Hala, B bikoizketak, txandaren arabera, 13:30ean edo 20:30ean amaituko dira. Bikoizketa duten saioak **1h eta 20 minutukoak** izango dira, saio aldaketa errazteko xedez. Ahal dela, etenik gabe emango dira, funtsean praktikoak izaten direlako.
- Bikoizketak daudenean (41 ikasletik 80 ikaslara bitartean) eta irakasleak irakaskuntza hamabost egunean behingo bikoizketekin antolatzen duenean (2 h), saioak **1h eta 45 minutukoak**, izango dira, saio aldaketa errazteko xedez.

Oharra: Administrazio prozesuak ez dira ixten irailaren amaierara arte. Bitartean, irakasle bakoitzak bere irakaskuntza antolatuko du (bikoizketekin edo bikoizketarik gabe) SIGMAren bidez eskuratzen dituen datuen arabera.

d. Unibertsitatearen irakaskuntza egutegia eta haren aplikazioa Fakultatean

Unibertsitateak seihileko bakoitzean bi aldi bereizi jartzen ditu:

- 1) Eskolak eta ebaluazio arrunta.
- 2) Errekuperazio ebaluazioa.

Fakultatean lehen aldia NUPEko gainerakoen antzera antolatzen da; hau da:

- i. Eskolak ohiko aldian.
- ii. Ohiko azken proba.
- iii. Ikasketa autonomoa egiteko astea, errekeruperazio ebaluazioa egin behar duten ikasleentzat.

Ikasleek behin eta berriz eskatu izan dute iii. puntua, haienez ezinbestekoa delako denbora tarte bat edukitzea hartutako gaitasunetan gabeziak zuzentzeko, eta errekeruperazio aldiak probak gaintzeko bermea edukitzeko.

e. Ebaluazioa Unibertsitatean eta haren aplikazioa Fakultatean

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ebaluazio Prozesuak Arautzen dituen Araudiak (a.61/2011. 15-12-2011-12-15eko Gobernu Kontseilua) ezartzen ditu Unibertsitate osoan aplikatu beharreko irizpideak. Araudi hau behera kargatzeko dago honako helbide honetan:

http://www1.unavarra.es/digitalAssets/156/156471_procesos-de-evaluacion.pdf

Aintzat hartu beharrekoak:

- Arau orokor gisa, **irakasgai bat gainditzeko ezin da betekizun gisa ezarri eskolara joatea**. Hori argi geratu da hainbat forotan eta hainbat modutan ezarri izan da Unibertsitateko Ebaluazio eta Ikasketa Prozesuak arautzen dituen araudian.
- 3. artikulua 1. puntuak honela dio hitzez hitz (letra lodia guk jarri dugu): "**Irakasgai batean matrikulatzeak eskubidea ematen die ikasleei** ikasketetan zehar eskuratu dituzten ikasketen eta gaitasunen emaitzak **ebalatuak izateko**. Ebaluazio horrek azken kalifikazio bat sortuko du, ikasketa espedientean agertuko dena".

Gainera, artikulua beraren 3. artikulua hau irakur daiteke: "Ikasleek eskubidea dute ebaluazio objektiboa eta, **ahal den neurrian**, jarraitua, izateko, irakaskuntzako eta irakaskuntzako metodologia aktiboan oinarritua". Hau da, ezinezkoa den kasuetan, aurretik aipatu artikulua beraren 1. puntuari jarraituko zaio.

- 10. artikulua, 2d) idatz-zatia: "Jarduera bat berreskuragarria ote den, edo ez. **Jarduera bat berreskuragarria** dela joko da baldin eta, seihilekoaren bukaeran Unibertsitateak finkatzen duen errekupeartzeko ebaluazio aldiaren, azterketen bidez edo beste ebaluazio-proba batzuen bidez gainditzeko aukera badago. **Oro har, horrelakoak izango dira ebaluazio-jarduera gehienak**.

Eta aurrerago eranstean da (10. art., 3b) idatz-zatia): "Berreskuragarriak ez diren ebaluazio-jarduerak baldin badaude, horien guztien batuketa ez da izango irakasgaiaren ebaluazio osoaren % 50 baino gehiago".

Fakultateak komenigarri ikusten du irizpide komunak ezartzea Haur Hezkuntzako Irakasle, Lehen Hezkuntzako Irakasle, Gizarte Lana eta Soziologia Aplikatua Graduetako irakasgai guztietarako. Ondoko hauek dira:

- Errekuperaziorako **gutxieneko** ehunekoa: % 70.
- Azken probaren¹ ehunekoa: % 60-70. Proba honen xedea da eskuratutako gaitasunak ebaluatzea modu global batean.
- Proba kopurua² irakasgai bakoitzeko: 2-4.
- Azken proben datak ohiko eta ohiz kanpoko aldietan seihilekoaren hasieran ezartzen ditu Fakultateak eta haren web-orrialdean daude kontsultatzeko.

Honek antolamendu globala egiteko aukera ematen dio Fakultateari, irakasgaietan ebaluazio eta irakaskuntza aldiak aldi berean gertatzea saihesteko, bestela ikasleen ikasteko denboran desorekak eta irakasleen artean egonezina sorrarazten baitira.

¹ *Proba*: ebaluaziorako tresna generikoa, ez ezinbestean azterketa bat zentzu klasikoan. Izan daiteke gai bati buruzko hitzaldi bat aurkeztea, lan baten ahozko aurkezpena, hainbat proba partzial egitea, etab. Irakasgaiaren ardura duten irakasleek zehazten dute beren irakasgai garatzeko hobekien egokitzen den proba.

² Aurreko oharrean adierazi bezala, "proba" batek ebaluatzeko hainbat tresna izan ditzake. Adibidez:

- Irakasgai batean laborategiko edo informatikako hainbat praktika egiten badira, adierazle bakar bat gisa har litezke. Horrela, proba baten kalifikazioa familia edo orientabide bereko lanen nota multzoak eman dezake.
- Hizkuntza irakasgai bateko azken ebaluazioak ulermen, eta adierazpen idatzi eta ahozko 4 proba kontuan hartzen baditu, guztiak adieraz daitezke "hizkuntza gaitasuna"ren azken proban.

2. 2015/2016 IKASTURTEKO UDAZKENEKO SEIHILEKOA

a. Unibertsitateko irakaskuntza-egutegia

URTEKO MATRIKULA DAUKATEN GRADU IKASKETAK

| septieMbre iraila | | | | | | | octubre urria | | | | | | | novieMbre azaroa | | | | | | |
|---------------------|----|----|----|----|----|----|-----------------|----|----|----|----|----|-----------------------------|--------------------|----|----|----|----|----|----|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | | | 1 | 2 | 3 | 4 | | | | | | | 1 | |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 16 | 17 | 18 | 18 | 20 | 21 | 22 |
| 28 | 29 | 30 | | | | | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | ²³ ₃₀ | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | |

| DicieMbre abenDua | | | | | | | enero urtarrila | | | | | | | Febrero otsalla | | | | | | |
|---------------------|----|----|----|----|----|----|-------------------|----|----|----|----|----|----|-------------------|----|----|----|----|----|----|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | | | | 1 | 2 | 3 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | 29 | | | | | | |

b. Unibertsitateko egutegiaren aplikazioa Fakultatean

| Aldia | Egutegia |
|-------------------------------|--------------------------------|
| Ohikoa | irailaren 7tik abenduaren 23ra |
| Azken probak* | urtarrilaren 8tik 16ra |
| Ikaslearen ikasketa autonomoa | urtarrilaren 18tik 24ra |
| Errekuperazio probak* | urtarrilaren 25etik 29ra |

*Fakultateak ezarritako egutegiaren arabera.

c. Unibertsitateko egutegiaren aplikazioa Irakasle Graduetako 3. seihilekoan

Irakasle Graduetako 4. seihilekoan ikasleek "Eskola Praktikak I" egiten dituzte. Fakultateak egutegia egokitu behar du ikastegi bakoitzaren inguruabar berezietara. 2015/16 ikasturtean aurreikusten den praktika aldia urtarrilaren 19tik otsailaren 5era da, biak barne. Horregatik, azterketetarako egutegiaren berriazko programazioa planifikatu behar da.

| Aldia | Egutegia |
|-----------------------|--------------------------------|
| Ohikoa | irailaren 7tik abenduaren 23ra |
| Azken probak* | urtarrilaren 7tik 12ra |
| Errekuperazio probak* | urtarrilaren 13tik 18ra |

*Fakultateak ezarritako egutegiaren arabera.

3. Irakasle Graduetako 7. seihilekoa

2 eskola praktikak (15 ECTS) direla eta, seihilekoko irakaskuntza denbora murriztuan bildu behar da: 8 aste. Seihileko honetako irakasgaien irakaskuntza honela egituratzen da:

| Aldia | Egutegia |
|---------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------|
| Ohikoa, irakaskuntza eta ebaluazioa | a) irailaren 7tik urriaren 7ra b) abenduaren 7tik urtarrilaren 15era |
| Irakaskuntzarik gabeko praktika-aldia | urriaren 8tik abenduaren 4ra |
| Ikaslearen ikasketa autonomoa | urtarrilaren 18tik 24ra |
| Errekuperazio probak* | urtarrilaren 25etik 29ra |

* Fakultateak ezarritako egutegiaren arabera.

Oharra: Seihilekoaren hasieran, irakasleek seihilekoko saioen egutegi zehatza ezarriko dute, eta ikasleen kopuruari eta beren irakasgaiaren ezaugarraiei egokituko zaizkie.

4. Seihilekoaren hasiera

- *Lehenengo eskola-eguneko asistentzia.* Irakasle batek ezinbesteko arrazoiagatik ezin badu talde baten lehen eskola saiora joan, Saileko lankideren bati emango dio ikasgelara joateko eta ikasleei jakinarazteko ardura. Neurri hori beti beteko da, bestelako neurriak hartzen badira ere. **Hau da, lehen irakaskuntza-egunean irakasleak edo bestela bere ordezkoko batek joan behar dute klasera aitzakiarik gabe.** Gainera, joan ezina aurretiaz aurreikusten denean, irakasleak mezu bat idatzi beharko die ukitutako ikasleei Nire Ikasgelategia aplikazioaren bidez.
- *Lehenengo eskola-eguneko asistentzia bikoizketa duten irakasgaietan.* Irakasgai bat hasten bada bi saio esleituta daukan egunean, ikasleak eta irakasleak 12:00etatik 14:00etarako saiora joango dira, goizez bada, eta 15:00etatik 17:00etara arratsaldean bada.

5. 2016ko udaberriko seihilekoko orduak

Fakultatearen web-orrialde ofizialean argitaratu dira, gradu bakoitzean.